Eskola

erasorik gabeko espazioa

UNITATE DIDAKTIKOA

steilas
www.steilas.eus

Eskola

erasorik gabeko espazioa

Sarrera

Unitate Didaktiko hau abiapuntu harturik, agerian utzi nahi dugu hezkuntza-zentroetan ere badagoela indarkeria matxistarik. Eskolako espazioen kokapenari eta antolaketa fisikoari erreparatu nahi diogu batez ere, izan ere, «beldur-espazioak» bihurtzen baitira neska eta emakumeentzat. Ingurugiroa arriskutsua dela nabaritzen dutenean beraien esparru publikoen erabilera mugatzen baita, seguru sentitzen ez diren eremu horiek sahiestu egiten baitituzte emakumeak. Hortaz, desoreka nabarmena dago gizon eta emakumeon artean kale, plaza eta eskolen erabilerari dagokionez, eta ondorioz emakumeak eta neskatoak ahul eta beldurra izan behar balute bezala tratatu behar direnaren aurreiritzia sortzen da.

Giza garapenerako premiazkoak diren eragile garrantzitsu batzuk elkartzen dira hezkuntza-zentroetan: familia, eskola eta komunitatea. Horien arteko hartu-emanaren ondorioz da garrantzitsua indarkeria matxistei modu zeharkakoan heltzea. Batzuetan, helduon begiradatik urrun gertatzen denez, ez dugu jazarpena antzematen, eta, sarritan, ez zaio behar adina arreta eskaintzen eta are gutxietsi egiten da, jazarpenaren ondorioak minimizatzen direlako.

Gure iritziz, batetik, ikasleek eta irakasleek jakin behar dute zer-nolako arriskuak dakartzan sexuen arteko ezberdintasunak, eta antzeman egin behar dituzte hamaika txokotara iristen diren mikro-matxismoak: ikasgelara, patiora, aldageletara, komunetara eta abarretara iristen baitira. Bestetik, irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuetan txertatu behar dira, besteak beste, emakumeen ekarpenak, maitasun erromantikoaren desmitifikazioa, berdintasunean eraikitako harremanak eta identitate eta joera sexualen aniztasunaren aldeko errespetua.

Espero dugu Unitate Didaktiko honetan landutako gaitasun eta ariketei esker errazago sortuko dela prestakuntza integral bat eskaintzeko behar den giroa, eta, hala, eskola-komunitatea bihurtuko dela espazio barne-hartzaile bat, indarkeria matxistarik gabea eta guzti-guztiontzat segurua.

Abiapuntua

HELBURU OROKORRA

Eskolan erasoak ematen diren espazioak identifikatu eta arazoaren konponbiderako taldeko irtenbideak bilatzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Askatasuna ahalbidetzen duen bizikidetasunerako jarrera egokiak eta desegokiak identifikatzea.
- Beldur mota desberdinak identifikatzea kontra jotzeko kapaza izateko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako erasoa ezkutatzen dituzten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espiritu kritikoa garatzea, haien ondorioez jabetzeko eta kontra borrokatzeko.
- Zein jendarte eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen norbanako guztien ongizatea bilatzeko.
- Gaitasun sozialak lantzea jabetza prozesu bat gauzatzeko (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea...), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.

EDUKIAK

- Unitatean agertzen diren jarrera ezberdinen definizioa: beldurra, elkarrizketa, eskuzabaltasuna, errespetua...
- Inguruaren ezagutza eta jabetza.
- Indarkeria matxistaren kontzientzia.
- Emakume eta nesken egoeraz sentsibilizazioa.
- Emozioen identifikazioa.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.

Jarduerak

1 GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Hurrengo jarduerak ikasleen adina zein gaiarekiko duten motibazioari egokitu beharko dira. Horretarako baliabide desberdinak erabili daitezke.

Materialak: STEILASek aurkeztu duen kartela, folioak, boligrafoak eta margoak.
Denbora: 3-4 saio.
Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

1. eta 2. saioa:
IDEIA ZAPARRADA

1. saioa

Garapena:

1. Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
2. Ikasleak talde txikitan banatuko dira eta hamabost minutuan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
3. Esanahiak komunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:
    - Zer irudi ikusten duzue kartelean? Zer esan nahi dute...?
    - Zein espazio identifikatzen dituzue?
    - Kartelaren leloak zer adierazten du?
    - A25 egun honetan zer aldarrikatzen da?
    - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
    - Egun hauetan errebindikazioak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
    - Zeri erreparatu diozuen horrelako ondorioak ateratzeko?

2. saioa

Garapena (HH eta LH):

Ikasleak banaka jarriko dira eta beraien eskolaren mapa margotuko dute, baita beldurra sentiarazten dieten puntuak identifikatu.

Deskribapena (DBH eta Batxilergoa):

Eskolako puntu beldurgarriak zeintzuk izan daitezkeen identifikatuko dituzte talde txikitan, ondoren saia daitezela identifikatzen eremu horiek sentimendu batekin, hitz bat erabiliz. Talde bakoitzean garatutako informazioa talde handitan konpartituko dute.

Puntuak arbelean zerrendatuko dira, eta beldurraren arrazoiaren inguruan hausnartuko da:

- Badu generoak zerikusirik beldur puntu horiekin?
- Benetako arriskurik al dago?
- Beldurrarekin bizitzeak ba al du eraginik pertsonaren jokabide eta nortasunean?
- Ba al dago tokirik non seguru sentitzen diren? Zergatik, bakarrik al daude toki horietan edo neska gehiagorekin?

Adib.: Neskak banaka edo taldean doaz komunera, zergatik? Beldurra al dute neskek dutxetan, zergatik? Mutilek beldur berdina sentitzen al dute? Ilunagoak diren tokietan beldur gehiago sentitzen dugu?

Puntu horiek nola argitu eztabaidatuko da.

3. saioa

Garapena (HH eta LH):

1. Irakasleak eskolaren mapa handi bat egingo du eta ikasle bakoitzak bere beldur puntuak markatuko ditu mapa erraldoian (irudi bat eginez, beltzez, gometxak erabiliz...).
2. Talde handian hausnarketa egingo da eta puntu bakoitza aztertuko da.
    - Zer gertatzen da bertan?
    - Nolakoak dira leku horiek?
    - Zer sentitzen dut bertan?
    - Bakarrik nagoenean edo taldean dut beldurra?
    - Zergatik dut beldurra?

Garapena (DBH eta Batxilergoa):

Puntu konfliktiboak argitzeko materiala sortuko da (kartelak edo mural bat egin daiteke artista bat gonbidatuz eta ikasle guztien parte hartzearekin, udaletxeari iluminazioa aldatzeko gutuna idatzi...) eta puntuetan jarriko dira ikusgai.

4. saioa

Garapena (HH eta LH):

Talde txikitan eskolako gune ezberdinetarako konponbideak pentsatuko dira eta materialak sortuko dituzte, kartelak, marrazkiak, ipuinak, antzerki edo esketxak...

Talde bakoitzak bere lana gelakideei aurkeztuko die eta eraso puntuetan zintzilikatu edo antzeztuko dituzte eskola guztiak ikusi ditzan.

2 ESKOLAKO PATIOA BERRERAIKI

Hurrengo ekintzak HH eta LHko haurrekin egiteko proposatzen ditugu.

Materialak: eskolan erabiltzen ez diren materialak (aulkiak, loreontziak, egurrak, paperak, kutxak, gurpil zaharrak, bankuak, pintura, zinta isolatzailea...).
Denbora: 2-3 saio.
Taldekatze mota: talde txikiak.

1. saioa

Deskribapena:

Talde handian eskolako patioa berrantolatu eta apaintzeko ideiak eztabaidatuko dira (eskolako tamainaren arabera adin tarteka espazioak banatu daitezke).

Behar dituzten materialen zerrenda eta bilketa egin.

2. eta 3. saioa

Deskribapena:

Patioa berreraikitzeko materialak sortuko dira (loreontziak, gurpilak, bankuak eraldatu, margotu...) edo patioan bertan eraldaketak egin. Adibidez lurrean jolas ezberdinak margotu...

3 AUTODEFENTSA TAILERRAK ANTOLATU

Taldekatze mota: neskentzat soilik.

Garapena: ahal den ikastetxeetan DBH 3 eta 4 eta batxilergoko ikasleei autodefentsa tailerrak antolatzea. Horretarako tailer hauek ematen dituzten taldeekin harremanetan jarri beharko litzateke ikastetxea.



Ebaluaketa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek indarkeriaz dituzten ezagupenak edota sentsibilitatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrek erraztuko du zehazten zeintzuk diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte hartzea eztabaidetan informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Harremanetan dagoen indarkeriaz jabetzen da?
- Eguneroko egoerak genero ikuspegia kontuan hartuta behatzen eta aztertzen ditu?
- Ohartzen da harremanetan dauden estereotipoez?
- Bere bizitzako lehentasunak mantendu al ditu sortzen dituen harremanetan?
- Kontziente da indarkeriak harremanei begira ekartzen dituen arriskuez?
- Ezagutzen du ondorengo hitzen esanahia?: beldurra, negoziazioa, jeloskortasuna, balorazioa, errespetua, sostengua, elkarrizketa, mesprezua, berekoikeria, inposaketa, lotsa, eskuzabaltasuna, segurtasuna. Gai da jakiteko zeintzuk diren egokiagoak bizikidetasunerako?
- Ezagutzen du askatasuna eta ausardia hitzen esanahia eta haien balio positiboa edo negatiboa?

EBALUATZEKO TEKNIKA

- Behaketa.

EBALUATZEKO TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Ikasle bakoitzaren istorioa. Bertan bilduko dira beraien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzean egindako ahozko ekarpenak.
- Egindako lanak.



IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko zuten prozesuan.

BALIABIDEAK

http://beldurbarik.org/eu/

ESPAZIOAREN DISEINURAKO IDEIAK

http://elkartoki.com/
http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/51639/como-intervenir-un-patio-escolar

MARTXAN TERAK
THE FUTURE IS FEMALE
Zure errespetua nahi dot, ez piropua!


LAS MUJERES BUENAS VAN AL CIELO,
LAS LIBRES DONDE QUIERAN.

ni sumisa
ni devota
te quiero
libre
linda y
loca
@prodyznil

No eres nada
DEL OTRO MUNDO,
eres LO MEJOR de este

BILLABONAKO MURALA

ABADIÑOKO MURALA

ANTXOKO MURAL MARGOKETA

IPUINAK

https://issuu.com/irenegonza/docs/beldurra

Beldurtia naiz eta zer?, Arantxa Iturbe.
Roke izeneko komuna, Antton Dueso.
Jonas eta hozkailu beldurtia, J.K. Igerabide.
Piztiak bizi diren lekuan, M. Senda.

40 urte irakaskuntzan

Eskola

erasorik gabeko espazioa

steilas

www.steilas.eus